

Kutxabankek bere hazkunde planean aurrera egin du, egoitza berria zabaldua Madrilen

- **Lurralde-egoitza berria gaur inauguratuko da eta Anton Arriola Kutxabankeko presidentea eta José Luis Martínez-Almeida Madrilgo alkatea izango dira bertan**
- **Madril funtsezko polo bat da bankuaren helburu estrategikoetarako, eta gaur egun Bankuaren negozio-bolumena 15.600 milioi ingurukoa da erkidego horretan**
- **Egoitza berrian, 125 pertsonak lan egingo dute, eta erakundeak Madrilen dituen 65 bulegoei gehituko zaie. Bulego horietan, 450 pertsonak lan egiten dute eta 161.000 bezero partikular eta 3.500 enpresa ingururi ematen diete arreta.**

2024ko ekainaren 13a. Kutxabankek lurralde-egoitza berria inauguratuko du gaur arratsaldean Madrilen, Claudio Coello kalean.

Inaugurazioan Anton Arriola Kutxabankeko presidentea eta José Luis Martínez-Almeida Madrilgo alkatea hartuko dute parte, enpresa munduko eta erakundeetako 140 gonbidatu baino gehiagoren aurrean.

Anton Arriolaren iritziz "egoitza hau hazkunde-etapa berri baten mugarria da. Erakundeak egitasmo estrategiko berri eta garrantzitsuak jarri ditu abian, beste bultzada bat emanez hainbat arlori, hala nola enpresa-bankaren arloari, kontsumoaren finantzaketari, finantzaketa egituratuari edo inbertsio-bankari".

Kutxabanken ustez, Madrilek Espainiako batez bestekoaren gainetik dauden hazkunde-aurreikuspenak ditu, eta Arriolaren arabera, "kalitate handiko gure banku-zerbitzuak egoitza bakar batean biltzeak eraginkortasun operatiboa eta komertziala hobetuko ditu, eta ziur gaude aukera berriak irekiko dituela bai partikularrekin bai hiriburuan kokatutako konpainiekin lan egiteko".

Egoitza berrian, 125 pertsonak lan egingo dute, eta erakundeak Madrilen dituen 65 bulegoei gehituko zaie. Bulego horietan, 450 pertsonak lan egiten dute eta 161.000 bezero partikular eta 3.500 enpresa inguru ematen diete arreta.

Madril funtsezko polo bat da bankuaren helburu estrategikoetarako. 2023a ixtean, Kutxabankek Madrilen zuen negozio-bolumena 15.600 milioi eurotik gorakoa zen, guztira 10.500 milioi bideratu zituen partikularrentzako eta enpresentzako maileguetan (kreditu-inbertsio osoaren % 20 baino gehiago), eta balantzetik kanpoko baliabideen bolumena 1.800 milioi euro ingurukoa zen (batez ere inbertsio-fondoak, diru-zorro delegatuak eta aurreikuspen-planak).

Claudio Coello 123

Claudio Coello 123 eraikina jasangarritasun irizpideekin duela gutxi erabat berritutako jabetza da, eta esparru horretan Leed Gold eta Well Silver ziurtagiriak ditu.

Salamanca auzoko lau kale garrantzitsuenen artean dago: **Claudio Coello**, **Lagasca**, **Juan Bravo** eta **Serrano** kaleak. Eraikinaren ingurua negozio- eta enpresa-eremu oparo eta eskusiboa da, eta horrek hiriko negozio-harremanen gune nagusi bihurtu du.

Kutxabanken lurralde-egoitza berriak guztira **4.560 m²**-ko azalera du, **beheko solairua** gehi **6 solairu**, 370 m²-ko terraza eta 54 aparkaleku.

Kutxabank

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, beren lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulego sarea, eta presentzia nabarmena Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesioaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, Kutxabank da gure finantza-sisteman kaudimen handiena duen bankua, eta arrisku-profil onena duen Europako hirugarren erakundea.